

KOSTUEN EGITURA

Webgunea aurrera eramateko hasieran ez da beharrezkoa inbertsiorik egitea, dohainik sor daiteke. Gastatuko den diru kantitatea baxua izango da.

Webgunea ezaguna izateko publizitatean inbertituko dugu, mugimenduan egon behar gara enpresa bultzatzeko. Sektorearen inguruan dauden jardunaldietara joango gara, honetan gertatzen diren ekintzak jakiteko eta kompetentziaren arabera diru kantitate bat gastatzeko iragarkietan, eta ez behar baino gehiago.

Marka espezifiko batekin ekitaldiren bat egin nahi badugu, inbertsio txiki bat egin beharko dugu bestela ezin izango da aurrera eraman.

Webgunearen segurtasunean ere inbertitu beharko dugu, arazoren bat gertatzen bada ahalik eta lasterren konpontzeko eta irabazirik ez galtzeko.

Soldatak ez dira finkoak izango. Zenbat eta arropa kopuru gehiago saltzean etekin gehiago izango ditugu, beraz, hortik aterako da gure soldata. Taldekideen artean proportzio berdinean zatituko da.

Gure lana egiteko ordenagailu bat behar dugu, baina ez dugu inbertsiorik egin behar. Beraz, tresna guztiak ditugu gure enpresa aurrera eramateko.

